

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25088 - Diseinuak eta Datuen Analisia: Metodo Esperimentala

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

"Ikerketa Diseinuak eta Datu Analisia: Metodo Esperimentala" hirugarren mailako lehenengo lauhilekoko irakasgaia da. Irakasgai hau Portaera Zientzien Metodologia jakintza arloan kokatzen da. Ikasleek aurrez izandako beste irakasgaietan, Psikologiako metodologia (lehen maila), Datu analisiak eta diseinua: Metodo ez-esperimentala (bigarren maila) eta Psikometriari (bigarren maila) landutako konpetentziak eta ezagutzak dira irakasgai honen oinarria. Irakasgaiaren helburu nagusia Metodologia Esperimentalari buruz ezagutza teorikoak eta aplikatuak eskuratzea da, oinarritzko diseinu esperimental eta kuasiesperimentalak eta diseinu horiei dagozkien datu analisiak barneratuz. Horretarako, ikerketa esperimentalaren prozesu osoa landuko da: bilaketa bibliografikoa, diseinua (baliagarritasuna eta ikerketaren etika barne), datu bilketa, analisi estatistikoak eta ikerketa txostena osatzea. Halaber, arreta berezia jartzen da arlo aplikatuan, horrela ikasitakoa erabil ahalko da Gradu Amaierako Lanean edota Ikerketa esperimental bat egiteko Psikologiako edozein eremuan.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Hipotesi test eta analisi estatistiko inferentziazko teknika nagusienak ezagutu.
2. Diseinu esperimental eta ia-esperimental mota nagusienak ezagutu.
3. Baliotasunaren aurkako mehatxu nagusienak kontuan hartuz eta analisirako prozedura egokiak hautatuz ikerketa esperimentalak eta ia-esperimentalak garatzeko gai izan.
4. Diseinu esperimental eta/edo ia-esperimental baten bidez jasotako datuak prozedura estatistiko eta informatiko egokien bidez analizatu.
5. Ikerketa artikuluen egitura ezagutu, ikuspegi kritikoz aztertu eta bertatik eratorritako ondorioak publikoki defendatu.
6. APAren arauak eta ikerketaren irizpide etikoak jarraituz, ikerketa txosten bat taldeka eratu.
7. Irakasgaiari dagozkion ezagutzak eta gaitasunak lortu ahal izateko lana planifikatu eta eskura dauden baliabideak (IKT, liburutegia, etab.) modu egokian erabili.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Gaia. Ikerketa eta diseinu esperimentala.
2. Gaia. Ikerketaren baliotasuna.
3. Gaia. Zorizko diseinu esperimentalak eta datu analisia.
4. Gaia. Bariantza errorea murrizten duten diseinu esperimentalak eta datu analisia.
6. Gaia. Neurri errepikatuen diseinu esperimentalak eta datu analisia.
7. Gaia. Diseinu ia-esperimentalak.
8. Gaia. Kasu bakarreko eta N txikiko diseinuak.

METODOLOGIA

Irakaskuntza atalean azaldutako modalitateen bidez irakasten da irakasgaia. Horrela, gaitegia lantzen den klase teorikoez gain, programa praktikoak honako jarduerak barneratzen ditu:

- Esperimentu baten diseinua eta inplementazioa eta ikerketa txosten baten osaketa. Jarduera hauek tailer, ordenagailu praktika, mintegi eta lan ez-presentzial bidez gauzatzen dira. Praktika honen helburua, ikasleak literatura zientifikoaren errebisioa egiteko, problemak planteatzeko, hipotesiak formulatzeko, datuak biltzeko, diseinuak proposatzeko, datuak analizatzeko, emaitzak interpretatzeko eta ikerketa txostena osatzeko gai izatea litzateke. Gainera, taldean lan egiten ikastea ere litzateke beste helburu bat.

- Artikulu zientifikoaren analisi metodologikoa. Jarduera hau gelako praktika eta lan ez-presentzial bidez gauzatzen da. Jarduera honen bidez, ikaslea artikuluko zientifiko baten estruktura eta edukiak ezagutu eta ikuspuntu kritiko batetik bere kalitate metodologikoa ebaluatzeko gai izatea, puntu indartsu eta ahulak identifikatzen. Talde guztiek, proposatutako artikuluko guztiak analizatu behar dituzte, eta horietako bat gelakideen aurrean azaldu.

- Datuen analisia. Jarduera hau ordenagailu praktika bidez burutzen da. Hipotesi ezberdinak frogatzeko datu analisien prozedura egokiak aukeratzeko, analisia burutzeko eta emaitzak interpretatzeko gai izatea litzateke helburua.

- Etika ikerketan. Jarduera hau tailer eta lan ez-presentzial bidez gauzatzen da. Bere helburua, gizaki eta animaliekin ikerketa egiterakoan dauden araudi etikoak ezagutzea litzateke, baita, eskaerak egin behar direnean jarraitu behar diren prozeduretara gerturatzea. Gainera, ikerketa proiektu bat osatu behar denean, Gradu Amaierako Lana adibidez, etika

batzordeari egin beharreko eskaera hauen garrantziaz ikasleei ohartaraztea litzateke beste helburu bat.

Ez-ohiko egoeren aurrean, osasun alarma kasu, ebaluazio jarduerak eta hauek amaierako notak duten pisua mantenduko dira. Hala ere, egoera horretan, jarduera hauek modu birtualean landu ahal izateko egokituko dira, Egela eta Blackboard Collaborate, zein beharrezkoak liratekeen beste prozedura batzuk erabiliz.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	11	2	9		4		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	16,5	3	13,5		6		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, ebaluazio jarraituan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita. Ebaluazio jarraituan parte hartzen ez duten ikasleak, azken ebaluaziora joango dela ondorioztatuko da modu automatikoan.

Ebaluazio jarraituaren sistema:

- Test motako edo erantzun motzeko frogak: %60 (%30 partziala, %30 amaierako azterketa)
- Ikerketa txostena eta etika praktika: %20
- Analisi metodologikoa (gelan burutuko den taldekako frogak): %10
- Datuen analisia (gelan burutuko den banakako frogak): %10

Azken ebaluazioaren sistema:

- Test motako edo erantzun motzeko frogak: %60
- Ikerketa txostena eta etika praktika: %20
- Analisi metodologikoa eta datuen analisiaren inguruko frogak praktikoa: %20

Irakasgaia gaintzeko atal teoriko (test motako frogak), ikerketa txostena eta analisi metodologikoa eta datuen analisiak osatzen duten blokea gaintu behar dira bi ebaluazio sistemetan. Ohiko deialdian test motako frogak gaintzeko ez balitz, praktiketako notak gauzatu diren ikasturteko ez-ohiko deialdirako soilik gordeko dira. Era berean, atal praktikoren bat gaintzeko ez balitz, atal teorikoko eta beste atal praktikoren notak gauzatu diren ikasturteko ez-ohiko deialdirako soilik gordeko dira.

Ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Behar izanez gero, proba egiteko unean izendatu ahal izango dira debekatutako materialak uzteko tokiak, ikasleen eskueratik kanpora gera daitezten.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Bestalde, lehen partziala eta praktikak gaintu dituzten, baina ebaluazio ofizialeko deialdira aurkezten ez diren ikasleek, suspentso kalifikazioa izango dute, irakasgaiaren ardura duen irakasleari deialdiari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztuko ez balute.

OSASUN ALERTA EGOERARAKO ORDEZKO EBALUAZIOA

Ez-ohiko egoeren aurrean, osasun alarma kasu, ebaluazio jarduerak eta hauek amaierako notak duten pisua mantenduko dira. Hala ere, egoera horretan, jarduera hauek modu birtualean landu ahal izateko egokituko dira, Egela eta Blackboard Collaborate, zein beharrezkoak liratekeen beste prozedura batzuk erabiliz.

Ikasleek lortutako ezagutzak erakusteko aukera bermatzeko, Internet konexioarekin zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, beste baliabide batzuk bilatuko dira ahal den neurrian: beste bide batzuen bitarteko banakako elkarrizketak kasu (telefono, bideokonferentzia…).

Ebaluazio frogan zehar, ikaslea ezarritako online saiora konektatu beharko da, non irakasleek edozein zalantza argitzeko aukera izango duten.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

Ohiko deialdian test motako froga gainditu ez duten, baina gainontzeko atalak gainditu dituztenen ikasleen kasuan, praktiketako notak gauzatu diren ikasturteko ez-ohiko deialdirako soilik gordeko dira. Ikasleak, kalifikazio hauei egin ahaliko die irakasgaiko irakasleari korreo elektronikoko bat bidaliz, azterketa data baino 5 egun lehenago gutxienez.

Ez-ohiko azterketa honako atalez osatuta egongo da: test motako edo erantzun motzeko froga, non ikasle guztiek osatu beharko duten eta azken kalifikazioaren %60 balioko duen; eta beste bi froga (ikerketa txostena eta etika praktika (%20) eta analisi metodologiko eta datuen analisiaren inguruko froga praktikoa (%20)).

Ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Behar izanez gero, proba egiteko unean izendatu ahal izango dira debekatutako materialak uzteko tokiak, ikasleen eskueratik kanpora gera daitezten.

OSASUN ALERTA EGOERARAKO ORDEZKO EBALUAZIOA

Ez-ohiko egoeren aurrean, osasun alarma kasu, ebaluazio jarduerak eta hauek amaierako notak duten pisua mantenduko dira. Hala ere, egoera horretan, jarduera hauek modu birtualean landu ahal izateko egokituko dira, Egela eta Blackboard Collaborate, zein beharrezkoak liratekeen beste prozedura batzuk erabiliz.

Ikasleek lortutako ezagutzak erakusteko aukera bermatzeko, Internet konexioarekin zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, beste baliabide batzuk bilatuko dira ahal den neurrian: beste bide batzuen bitarteko banakako elkarrizketak kasu (telefono, bideokonferentzia…).

Ebaluazio frogan zehar, ikaslea ezarritako online saiora konektatu beharko da, non irakasleek edozein zalantza argitzeko aukera izango duten.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ez da derrigorrezko testurik. Irakaskuntza presentzialerako lagungarria den materiala ikasleentzat eskuragarri jarriko dira e-Gela plataforman.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Abdi, Hervé & Edelman, Betty & Valentin, Dominique & Dowling, Walter. (2009). Experimental Design and Analysis for Psychology. NY: Oxford University Press.

Balluerka, N. (1999). Planificación de la investigación. La validez del diseño. Salamanca: Amarú.

Balluerka N. y Vergara A.I. (2002). Diseños de investigación experimental en Psicología. Madrid: Pearson. Prentice Hall.

Barlow, D.H. y Hersen, M.H (1988). Diseños experimentales de caso único (Ed. Original de 1984, Single case experimental designs. Oxford, UK: Pergamon Press). Barcelona: Martínez Roca.

Christensen, L.B. (2011). Experimental methodology (11ª ed.). Pearson International Edition.

Field, A. (2017). Discovering statistics using SPSS (5º ed.). Londres: SAGE.

Winer, B. J., Brown, D. R. y Michels, K. M. (1991). Statistical principles in experimental design (3ª ed.). Nueva York: McGraw-Hill.

Gehiago sakontzeko bibliografia

American Psychological Association (2010). Publication manual of the American Psychological Association (6ª ed.).

Washington, DC: American Psychological Association.

Cohen, J. (1988). Statistical power analysis for the behavioral sciences (2nd ed.). Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.

Fontes, S., García, C., Garriga, A. J., Pérez-Llantada, M. C. y Sarriá, E. (2001). Diseños de investigación en Psicología. Madrid: UNED.

Huitema, B.E. (2011). The analysis of covariance and alternatives (2ª ed.). New York, NY: John Wiley & Sons.

Martínez Arias, R., Castellanos, M.A. y Chacón, J.C. (2014). Análisis de datos en Psicología y Ciencias de la Salud. Madrid: EOS.

Maxwell, S. E. y Delaney, H. D. (2004). Designing experiments and analyzing data. A model comparison perspective (2ª ed.). Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.

Navarro, D.J. y Foxcroft, D.R. (2019). Learning statistics with jamovi: a tutorial for psychology students and other beginners. doi: 10.24384/hgc3-7p15 Recuperado de:
<https://drive.google.com/file/d/1awJBpfse5BpesVMRijnggTRSTygNWGI0/view>

Pascual, J., García, J.F. y Frías, M.D. (1995). El diseño y la investigación experimental en psicología. Valencia: C.S.V.

Shadish, W.R., Cook, T. D. y Campbell, D.T. (2002). Experimental and quasiexperimental designs for generalized causal inference. Boston, MA: Houghton Mifflin Company.

Aldizkariak

Behavior Research Methods. Psychonomic Society.

Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory and Cognition. APA. Journal of Experimental Social Psychology. Academic Press.

Methodology. European Journal of Research Methods for the Behavioral and Social Sciences.

Psychological Methods. APA

Anales de Psicología Psicológica. SEPEX

Psicothema

Interneteko helbide interesgarriak

Base de datos PsycINFO. <http://www.biblioteca.ehu.es/>

Journal of Citation Reports. Thomson. ISI Web of Knowledge. <http://www.biblioteca.ehu.es/>

American Psychological Association. Ethical principles in the conduct of research with human participants. Washington, DC: American Psychological Association. www.apa.org/ethics

Colegio Oficial de Psicólogos (cop). Madrid. <http://www.cop.es>

American Psychological Association (APA) Washington. Estados Unidos. <http://www.apa.org>

Psychonomic Society. Estados Unidos: <http://www.psychonomic.org>

Asociación Española de Metodología. <http://www.aemco.es>

Sociedad Española de Psicología Experimental. <http://www.sepex.es>

OHARRAK